

Mendi Tour - 'Un día al año'. 'Cantos y flores', 'Le moulin des artistes' eta 'K2Mon Amour'

Mendi Tour Fundación Vital

Arkabia (Postas 13-15)

2026ko martxoaren 24a

19:30

5€



Mendi Tour Vital Fundazioak bere 14. edizioa ospatuko du, urteko hitzordu finkoa Arabako hiriburuan. Hori dela eta, bertaratzen direnek mendiko zinemarik onenaz eta berrienaz gozatuko dute berriro. Bestalde, aurten ARKABIAra lekualdatuko da, Vital Fundazioaren gizarte- eta kultura-gune berrira, Posta 13-15ean.

Informazioa

UN DÍA AL AÑO

1970az geroztik, eskalatzaile gazte talde bat Atxarteko bailara isolatu eta pintoreskoan biltzen zen, Euskal Herriko mendietan, mendiarekiko pasioa partekatzeko. Nazioarte mailan

aitzindariak ziren igoeretan ere ausartu ziren. Hala ere, dena aldatu zen haietako batek trafiko-istripu larri bat izan zuenean, eta medikuek esan zioten ez zuela inoiz berriro eskalatuko. Berreskuratze miragarriaren ondoren, tradizio berezi bat asmatu zuen bere itzulera ospatzeko: Atxarteko Inauteria. Urteen poderioz, egun hori ezinbesteko hitzordua bihurtu zen eskalatzaileen komunitatearentzat.

2025, España, 16min | Director: Alfonso García V.O. es / SUBT eu

CANTOS Y FLORES

Anaia hil eta zazpi urtera, Karina Carsoliok amets bera hartu zuen: Boliviako mendi ikonikoenetan gora eta behera ibiltzea -Hayna Potosi, Illimani eta Sajama-, FKTak egiten saiatuz (markarik azkarrena). Eta esperientzia handiko Hillary Gerardi mendi korrikalariarekin batera egingo du. Kirol-erronkarekin batera, mendiak minaren, orbantzen diren zaurien eta nolabaiteko berrelkartze espiritualaren ispilu bihurtuko dira.

Kirol eta Abentura Film Onena BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia 2025

2025, EEUU, 27min. | Director: Julen Elorza V.O. en, es / SUBT eu, es

LE MOULIN DES ARTISTES

Chamonix haraneko XVI. mendeko errota batean, Peterrek eta Anatik Le Moulin des Artistes zuzentzen dute: eski-tailerra, arte-gunea eta antzeko ideiak dituzten espirtu askeentzako topagunea. Bai Peterrek eskuz egindako egurrezko eskiekin, bai Anatiren pinturekin eta musikarekin, Le Moulin des Artistesek zure bizitza adierazpen sortzaileari eskaintzen diozunean gertatzen dena erakusten digu: helburu berriak ekar ditzake, komunitate iraunkor bat eraikitzeko balio du, eta hondamendiei aurre egiten eta gainditzeko ere laguntzen du.

BBK Mendi Film Labor Onena Bilbao-Bizkaia 2025

2025, Francia, 25min | Director: Pierre Cadot V.O. en, fr / SUBT eu, es

K2MON AMOUR

2024ko udan, Liv Sansozek eta Zeb Rochek K2 gailurrera iristea proposatu zuten, 8.611 metrora, oxigeno artifizialik gabe, eta oso amets zoroarekin: gailurretik parapentean elkarrekin aireratzea. Istorio hau mendian gailur saiakera bat baino askoz gehiago da; K2ko edertasun basati eta naturalaren oda bat da

Alpinismoko film onena BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia 2025

2025, Francia, 40min | Director: Mathieu Rivoire V.O. en, fr / SUBT eu, es

Sarerrak

Sarrerak aurrez aurre eros daitezke Arkabian (13-15 postak) edo online, 5 euroan, esteka honetan:

Sarrera(k) erosi

Irudien galeria

- 

Zabaldu
- 

Zabaldu

•



Zabaldu

•



Zabaldu

